Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2026ko maiatzaren 22a, ostirala — 94 — Viernes, a 22 de mayo de 2026

TOLOSAKO UDALA

Iragarkia

Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko maiatzaren 5ean egindako bileran, beste gai batzuen artean, honako akordioa hartu zuen:

Lehena. Onartzea Tolosako Udaleko musika irakasle (piano eta tailerra) plaza betetzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarriak eta deialdia.

Bigarrena. Deialdia eta oinarriak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udaleko egoitza elektronikoan argitaratzea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, erabaki honen aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke egintza eman zuen organoaren aurrean, hilabeteko epean, erabakia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearekin eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearekin bat etorriz, erabaki hori zuzenean aurkaratu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, erabakia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Deialdien eta epaimahaien jardunaren ondoriozko administrazio egintzak inpugnatu ahal izango dituzte interesdunek, Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako kasuetan eta moduan.

Tolosa, 2026ko maiatzaren 5a.—Angel Martinez de Rituerto Arregui, alkatea. (3090)

OINARRI ESPEZIFIKOAK

MUSIKA IRAKASLEA (PIANO ETA TAILERRA)

1. *Plazaren ezaugarriak.*

Lan-harremana: Laborala.

Eskala: Administrazio Berezia.

Azpieskala: Erdi mailako teknikaria.

Sailkapen taldea: A2.

2. *Plaza kopurua.*

Txanda librea: 1.

Deitutako plaza kopurua handitu egin daiteke hautaketa-prozesuan edozein arrazoi dela eta hutsik gera daitezkeen tokien arabera. Plaza kopurua handitze hori Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Tolosako Udalaren egoitza elektronikoan argitaratuko da, eta hizkuntza eskakizuna betetzeko derrigortasun data duten lanpostuen kopurua adieraziko da. Nolanahi ere, azken kalifikazioak argitaratu aurretik adostu eta argitaratu beharko da.

AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

Anuncio

La Junta de Gobierno Local en sesión celebrada el día 5 de mayo de 2026, adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo:

Primero. Aprobar las bases y la convocatoria que han de regir el proceso selectivo para la provisión de una plaza de profesor/a de música (piano y taller) del Ayuntamiento de Tolosa.

Segundo. Publicar la convocatoria y sus bases en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la sede electrónica del Ayuntamiento.

De acuerdo con la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, el presente acuerdo podrá ser recurrido potestativamente en reposición en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, ante el mismo órgano que dictó el acto.

No obstante, de conformidad con la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y la Ley 29/1998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, este acuerdo también podrá ser impugnado directamente ante el orden jurisdiccional Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Los actos administrativos que se deriven de las convocatorias y de la actuación de los Tribunales, podrán ser impugnados por las personas interesadas en los casos y en la forma establecida en la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones.

Tolosa, a 5 de mayo de 2026.—El alcalde, Angel Martinez de Rituerto Arregui. (3090)

BASES ESPECÍFICAS

PROFESOR/A DE MÚSICA (PIANO Y TALLER)

1. *Características de la plaza.*

Relación laboral: Laboral.

Escala: Administración Especial.

Subescala: Técnico/a medio.

Grupo de clasificación: A2.

2. *Número de plazas.*

Turno libre: 1.

Se podrá ampliar el número de plazas convocadas en función de las vacantes que se produzcan por cualquier causa durante el desarrollo del proceso selectivo. La ampliación se hará pública en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la sede electrónica del Ayuntamiento de Tolosa, haciendo constar el número de plazas que tengan asignada fecha de preceptividad en el cumplimiento del perfil lingüístico y, en todo caso, deberá ser acordada y publicada con anterioridad a la publicación de las calificaciones finales.

EK\CV GAO-I-2026-03090

3. Bete beharreko lanpostua.

3.1. Lanpostua:

— Musika irakaslea (8.303 kodea) (% 100ko jardunaldia).

3.2. Hizkuntza eskakizuna: C1 C1, nahitaezkoa.

3.3. Lanaldia: Udalak urtero ezartzen duena, kontuan hartuta, edozein kasutan, lanpostuaren izaera eta behar espezifikoak.

3.4. Praktikaldia: Bai, 6 hilabete.

3.5. Ordainsariak:

A2 taldea.

Lanpostu mailako osagarria: 20.

Berariazko osagarria: 14.161.28 euro urtean.

4. Baldintzak.

Tolosako Udaleko lan-kontratudun finko izateko hautaketa prozesuen oinarri orokorretako laugarren oinarrian ezarritako baldintza orokorrez gain, honakoak bete beharko dira:

— Titulua: Musikako gradua, erdi mailako titulua musikan edo parekatua.

— Bete nahi den lanpostuak derrigorrezko C1 C1. hizkuntza-eskakizuna dauka esleituta; horrenbestez, C1 C1. HE izatea ezinbestekoa da lanpostua betetzeko (Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 188. artikulua).

5. Eginkizunak.

— Erantzukizun orokorrak:

Musika-hezitzailearen berezko lanak egitea, Musika Eskolan ezarritako jarraibideekin eta hezkuntza-planekin bat etorriz.

— Lan esanguratsuenak:

Irakaslea:

1. Jardueren eta edukien diseinu pedagogikoari eta plangintzari buruzko lanak egitea; irakasgaien prestaketa, azterketa pertsonala eta materialaren antolaketa egitea.

2. Ikasleen sentsibilizazio, ezagutza eta gaitasun musikalak sustatzen dituzten programak eta jarduerak ezartzea.

3. Bertaratzearen gaineko jarraipena eta eguneko eta aldizkako ebaluazioa egitea, ikasleen ebaluazioa eta azterketak egitea, lanbide-ikasketetara bideratzeko informazioa eta orientabideak ematea aurreratuen dauden ikasleei, eta horren berri ematea gurasoei edo tutoreei.

4. Tresna bakoitzaren teknikak eta ikasteko teknikak irakastea.

5. Musika Eskolak, barnean edo kanpoan, antolatzen dituen jardueretan parte hartzea.

6. Gainerako irakasleekin elkarlanean aritzea askotariko zerbitzuak garatzeko: kontzertuak, ikasgelaz kanpoko jarduerak, beste ikastegiekiko trukeak, etab.

7. Sarrera-probak eta ikasle taldeak diseinatzeari buruzko askotariko lanak egitea, eta ikasle nabarmenak lanbide-ikasketetarako prestatu eta aurkeztea.

8. Ikastegiaren bileretan parte hartzea (klaustroak, bilerak guraso edo tutoreekin, etab.), eta behar den informazioa ematea ikasturtearen bilakaera ebaluatzeko.

9. Herritarrei arreta eta informazioa ematea, zuzenean eta telefonoz, bere eskumeneko arloetan.

10. Kontzertuak prestatzen eta antolatzen parte hartzea.

3. Puesto a desempeñar.

3.1. Puestos de trabajo:

— Profesor/a de música (código 8.303) (jornada 100 %).

3.2. Perfil lingüístico exigido: C1 C1, preceptivo.

3.3. Jornada: La que establezca anualmente la corporación atendiendo, en todo caso, a la naturaleza y necesidades específicas del puesto.

3.4. Período de prácticas: Sí, 6 meses.

3.5. Retribuciones:

Grupo A2.

Complemento de destino: 20.

Complemento específico: 14.161,28 euros anuales.

4. Requisitos.

Además de los requisitos generales establecidos en la base cuarta de las bases generales de los procesos selectivos para el ingreso como personal laboral fijo al servicio del Ayuntamiento de Tolosa, se deberán cumplir los siguientes requisitos:

— Título: Grado en música, título de grado medio en música o asimilado.

— El puesto que se pretende proveer tiene asignado el perfil lingüístico C1 C1 preceptivo, por lo que la posesión del PL C1 C1 es requisito indispensable para su provisión (art. 188 Ley 11/2022, de 1 de diciembre, del Empleo Público Vasco).

5. Funciones.

— Responsabilidades generales:

Desarrollar las tareas propias de educador musical, en coherencia con las directrices y planes educativos establecidos en la Escuela de Música.

— Tareas más significativas:

Profesor:

1. Realizar tareas relativas al diseño pedagógico y planificación de actividades y contenidos; preparación, estudio personal y organización del material de distintas asignaturas.

2. Implementar programas y actividades que fomenten la sensibilización, conocimientos y capacidades musicales del alumnado.

3. Realizar el seguimiento y evaluación diaria y periódica de asistencia, evaluación del alumnado, exámenes, así como informar y orientar al alumnado más avanzado hacia estudios profesionales, informando de ello a padres o tutores.

4. Enseñar la técnica propia de cada instrumento y técnicas de estudio.

5. Participar en aquellas actividades, internas o externas, que se organicen desde la Escuela de Música.

6. Colaborar con los demás profesores en el desarrollo de distintos servicios: conciertos, actividades extraacadémicas, intercambio con otros centros, etc.

7. Realizar diversas tareas relativas al diseño de pruebas de acceso y agrupación de alumnos, así como la preparación y presentación de alumnos aventajados a estudios profesionales.

8. Participar en las reuniones del centro (claustros, reuniones con padres o tutores, etc.), aportando la información necesaria para la evaluación de la marcha del curso.

9. Prestar atención e información, personal y telefónicamente a los ciudadanos en las materias de su competencia.

10. Participar en la preparación y organización de conciertos.

EK\CV GAO-I-2026-03090

Eginkizun komunak:

11. Arloa hobetzen laguntzea eta hobekuntza hori lortzeko beharrezkoak diren ekintzak eta aldaketak proposatzea.

12. Lana antolatzea, ezarritako helburuak beteko direla bermatzeko.

13. Unitatera/arlora atxikita dauden gainerako langileei laguntzea lanak pilatzen direnean, edo langileren bat kanpoan edo gaixorik dagoenean.

14. Lankideei aholkuak ematea eta laguntzea, bere ezagutza edota eskarmentuagatik hobeto menderatzen dituen lanetan.

15. Arloan dauden instalazioen eta baliabideen erabilera, kontserbazioa eta mantentzea egokia dela begiratu eta zaintzea.

Bere kategoriari dagokion eta agintzen zaion beste edozein lan egitea, aldez aurretik horretarako jarraibideak jasota.

6. Eskaerak aurkezteko epea.

Tolosako Udaleko lan-kontratudun finko izateko hautaketa prozesuen oinarri orokorrek bosgarren oinarrian xedatutakoari jarraituko zaio.

7. Epaimahai Kalifikatzailea.

Epaimahai Kalifikatzailea honako kide hauek osatuko dute:

Lehendakaria:

— Udaleko Giza baliabideetako arduraduna edo haren ordezkoa.

Kideak:

— IVAPek edo horren ordezkoak proposatuta izendatutako teknikaria.

— IVAPek proposatuta, euskara-proba egiteko izendatutako teknikaria.

— Bertako edo beste udal bateko bi lan-kontratudun finko edo karrerako funtzionario edo haien ordezkoak.

Idazkaria:

— Udaleko Giza Baliabideetako departamentuko karrerako funtzionario bat edo haren ordezkoa.

8. Oposizio-fasea.

1) Lehenengo proba: Teorikoa. Nahitaezkoa eta baztertzailea.

Idatziz erantzun beharko da test motako galdetegi bat, eta galderak espezifiko hauen I. eta II. eranskinean aurreikusten diren gaitegi orokorrari eta espezifikoari buruzkoak izango dira.

0 eta 20 puntu artean emango dira, eta gutxienez 10 puntu lortu beharko dira hurrengora igarotzeko.

2) Bigarren proba: Praktikoa. Nahitaezkoa eta baztertzailea.

Interpretazioa (40 puntu).

Izangaiek honako hauek interpretatu beharko dituzte:

— Sonata, 27. zk., Mi Op. 90 1. mug. Van Beethoven (20 puntu).

— Aukerako obra bat (10 puntu). Gehienez 5 minutu (beharrezko laguntza teknikoak hautagaiek ekarri beharko dituzte).

— Lehen bistako irakurketa-proba bat (10 puntu).

Atal honetan, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan izangaia ebaluatzeko:

— Afinazioa.

— Tempoa.

Funciones comunes:

11. Fomentar y colaborar en la mejora del Área, proponiendo cuantas acciones y modificaciones contribuyan a dicha mejora.

12. Organizar el trabajo a fin de garantizar el cumplimiento de los objetivos establecidos.

13. Colaborar con el resto del personal adscrito a la unidad/área en situaciones de acumulación de tareas, ausencia o enfermedad.

14. Asesorar y apoyar a sus compañeros en aquellas tareas en las que, por sus conocimientos y/o experiencia, tenga un mayor dominio profesional.

15. Procurar y velar por el buen uso, conservación y mantenimiento de las instalaciones y medios existentes en el Área.

Efectuar cualquier otra tarea propia de su categoría que le sea encomendada y para la cual haya sido previamente instruido.

6. Plazo de presentación de solicitudes.

Se estará a lo dispuesto en la Base quinta de las bases generales de los procesos selectivos para el ingreso como personal laboral fijo al servicio del Ayuntamiento de Tolosa.

7. Tribunal Calificador.

El Tribunal Calificador será compuesto por los siguientes miembros:

Presidente/a:

— El Responsable de recursos humanos del Ayuntamiento o persona que la sustituya.

Vocales:

— Técnico/a designado/a a propuesta del IVAP o persona que lo/la sustituya.

— Técnico/a designado/a a propuesta del IVAP para la realización de la prueba de euskara.

— Dos personas laborales fijas o personas funcionarias de carrera del propio o de otro Ayuntamiento o persona que lo sustituya.

Secretario/a:

— Un/a funcionario/a de carrera del Departamento de Recursos Humanos del Ayuntamiento o persona que lo/la sustituya.

8. Fase de oposición.

1) Primera prueba: Teórica. Obligatoria y eliminatoria.

Consistirá en contestar por escrito a un cuestionario de preguntas tipo test, relacionadas con el temario general y especifico que figura en el anexo I y II de estas bases específicas.

Se valorará de 0 a 20 puntos, debiéndose obtener un mínimo de 10 puntos para pasar a la siguiente.

2) Segunda prueba: Práctica. Obligatoria y eliminatoria.

Interpretación (40 puntos).

Los aspirantes deberán interpretar:

— Sonata n.º 27 en Mi Op. 90 1.er Mov. I. Van Beethoven (20 puntos).

— Una obra de libre elección (10 puntu). 5 minutos como máximo (las ayudas técnicas necesarias deberán ser aportadas por las personas aspirantes).

— Una prueba de repentización (10 puntos).

En este apartado, se tendrán en cuenta los siguientes criterios a la hora de evaluar al aspirante:

— Afinación.

— El tempo.

EK\CV GAO-I-2026-03090

— Estiloa.

— Soinuaren kalitatea.

— Musikaltasuna.

Bigarren proba 0tik 40 puntura bitartean baloratuko da, eta gutxienez 20 puntu lortzea beharrezkoa izango da hurrengo fasera igarotzeko.

3) Hirugarren proba: Irakaskuntza gaitasunaren proba. Nahitaezkoa eta baztertzailea.

Hirugarren proban honako klaseak eman beharko dira:

— Bi ikasle-profilei klase bat eman beharko zaie: ikasle hasi berri bati (10 puntu) eta ikasle beterano bati (10 puntu).

— Bigarren zikloko klase bat (10 puntu).

— 6 urteko ikasleei tailerreko klase bat (10 puntu).

Ebaluaziorako honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

— Denboraren banaketa.

— Edukien antolaketa.

— Helburuen lorpen-maila.

— Ikaslearekin konektatzeko gaitasuna.

Hirugarren proba 0tik 40 puntura bitartean baloratuko da, eta gutxienez 20 puntu lortzea beharrezkoa izango da gainditzeko.

4) Laugarren proba: Gaitasun- eta/edo nortasun-probak. Nahitaezkoa eta baztertzailea.

Gaitasun psikologikoak (jarrerak eta/edo gaitasunak) neurtzeko proba bat edo gehiago egin beharko dira, lanposturako hautagaiak egokiak diren baloratzeko. Adimen eta gaitasun konpententziak neurtuko dira, baita jarrerazkoak edo nortasunekoak ere. Horiekin batera, elkarrizketa pertsonal bat egingo da, lanpostua betetzeko behar diren gaitasunei buruzkoa.

Horretarako, hainbat gaitasun baloratuko dira, hala nola zeharkakotasuna, proaktibitate pertsonala, komunikatzeko gaitasuna, negoziatzeko trebetasuna, arazoak aztertzea eta erabakiak hartzea, plangintza eta antolaketa eta talde-lana.

Profesionalek lanpostuaren arabera egokitzat jotzen dituzten tresna motak erabili ahal izango dira (testak, elkarrizketak, talde-dinamikak, rol-probak, etab.).

Gehienez 10 puntu emango dira, eta gainditzeko gutxienez 5 lortu beharko dira.

5) Bosgarren proba: Euskara. Nahitaezkoa eta baztertzailea.

Euskarako C1 C1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu beharko da.

Azterketa IVAPek proposatutako egunean zehazten dituen bulegoetan egingo da. Otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuarekin bat etorriz, proba hori egitetik salbuetsita geratuko dira, jarraian aipatzen diren euskara-ziurtagiri edo -tituluetakoren bat dutela egiaztatzen dutenak:

— Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) ziurtagiria, hizkuntza-eskakizun hori egiaztatu dela egiaztatzen duena.

— Beste ziurtagiri baliokide batzuk, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin edo hura ordezten duen araudiarekin bat etorriz.

Proba hori Gai edo Ez Gai kalifikatuko da, eta Gai kalifikazioa eskatuko da proba gainditzeko.

9. Lehiaketa-fasea.

Gehienez ere 12,5 puntu emango dira.

— Estilo.

— Calidad sonora.

— Musicalidad.

Esta segunda prueba se valorará de 0 a 40 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 20 puntos para pasar a la siguiente.

3) Tercera prueba: Prueba de competencia docente. Obligatorio y eliminatorio.

La tercera prueba consistirá en impartir:

— Una clase a dos perfiles de alumnado: un/a alumno/a nuevo/a (10 puntos) y un/a alumno/a veterano/a (10 puntos).

— Una clase correspondiente al segundo ciclo (10 puntos).

— Una clase de taller dirigida a alumnado de 6 años (10 puntos).

Se tendrán en cuenta a la hora de evaluar:

— Distribución del tiempo.

— Distribución de temas.

— Logro de los objetivos seleccionados.

— Conexión con el alumno.

Esta tercera prueba se valorará de 0 a 40 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 20 puntos para pasar a la siguiente.

4) Cuarta prueba: Pruebas de competencia y/o de personalidad. Obligatorio y eliminatorio.

Consistirá en la realización de una o más pruebas destinadas a medir las competencias psicológicas (actitudes y/o aptitudes) a fin de valorar la adecuación de las personas aspirantes al puesto de trabajo. Se medirán tanto las competencias intelectivas-aptitudinales, como las actitudinales o de personalidad, que se acompañaran de una entrevista personal que versará sobre las competencias necesarias para el desempeño del puesto.

Para ello, se valorarán competencias como transversalidad, proactividad personal, capacidad de comunicación, habilidades de negociación, análisis de problemas y toma de decisiones, planificación y organización y trabajo en grupo.

Se podrán utilizar los distintos tipos de herramientas (test, entrevistas, dinámicas de grupo, pruebas de rol, etc.) que los/as profesionales consideren oportunas en función del puesto de trabajo.

Se calificará sobre un máximo de 10 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 5 puntos para superarlo.

5) Quinta prueba: Euskera. Obligatoria y eliminatoria.

Consistirá en la acreditación del perfil lingüístico C1 C1 de euskera.

El examen se realizará en las dependencias que determine el IVAP en fecha propuesta por dicho Instituto. De conformidad con el Decreto 19/2024, de 22 de febrero, quedarán exentos/as de realizar esta prueba quienes acrediten, estar en posesión de alguno de los certificados o títulos de euskara que se citan a continuación:

— Certificado del Instituto Vasco de Administraciones Públicas (IVAP) de haber acreditado dicho perfil lingüístico.

— Otros certificados equivalentes, de conformidad con el Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera, y equiparación con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas, o normativa que lo sustituya.

Esta prueba se calificará como Apto/a o No Apto/a, requiriéndose la declaración de Aptitud para superar dicha prueba.

9. Fase de concurso.

Se valorará sobre un máximo de 12,5 puntos.

EK\CV GAO-I-2026-03090

1) Lan-esperientzia, gehienez 8,3 puntu, ondorengo baremo honen arabera:

— Administrazio Publikoan Hezkuntza Administrazioak baimendutako edo haren menpekoak diren Musika edo/eta Dantza ikastetxeetan piano eta tailerreko musika irakasle funtzioak beteta eskainitako zerbitzuengatik, gehienez ere 8,3 puntu, zerbitzu-hilabete bakoitzeko 0,3 puntu emanda.

Kasu guztietan, dedikazioa lanaldi osokoa ez bada, puntuazioaren hainbanaketa egingo da. Hilabetea baino epe motzagoetan ere hainbanaketa egingo da.

Oinarri orokorretako hamaikagarren oinarriaren arabera, besteak beste, epaimahai kalifikatzaileak beste administrazio publikoetan emandako zerbitzuak egiaztatzeko eskatuko die hautagaiei. Horretarako, organo eskudunak egindako ziurtagirien bidez, adierazi beharko direlarik enplegu harremanaren iraupena, dedikazioaren ehunekoa, betetako lanpostua eta egindako zereginak.

Tolosako Udalean emandako zerbitzuak, berriz, ez dago agiri bidez egiaztatu beharrik, eta baloratuko dira hautagaien espediente pertsonaletan dauden datuetan oinarrituta.

Hala eta guztiz ere, epaimahaiak egin ditzake egoki iritzitako egiaztapenak.

2) Prestakuntza, gehienez 4,2 puntu.

Deitutako plazaren zereginekin lotutako prestakuntza osagarria baloratuko da, gehienez 4,2 puntu emanda, ondorengo baremo honen arabera:

— 5 eta 20 ordu arteko ikastaroa: 0,25 puntu, ikastaro bakoitzeko.

— 21 eta 50 ordu arteko ikastaroa: 0,50 puntu, ikastaro bakoitzeko.

— 51 eta 100 ordu arteko ikastaroa: puntu 1 ikastaro bakoitzeko.

— 101 eta 250 ordu arteko ikastaroa: 1,5 puntu ikastaro bakoitzeko.

— Unibertsitateko gradu titulua, deialdian parte hartzeko titulazio baldintza betetzeko erabilitakoaz bestelakoa, masterra edo graduondoko ikastaroa: 2,5 puntu.

Prestakuntza osagarria egiaztatu egin beharko da ikastaroa eman duen erakunde ofizialak egindako ziurtagirien bidez, edo lortu den titulua aurkeztuta (edo jasotzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria aurkeztuta).

10. Lan-poltsa.

Oposizio-lehiaketa gainditu duten hautagaiekin lan-poltsa sortuko da. Lan-poltsa prozesuan lortutako azkeneko puntuazioaren araberako hurrenkeran egingo da.

Lan poltsa horiek erabili ahal izango ditu udalak berak lanpostu berean edo antzeko funtzioak dituzten lanpostuetan sortzen diren aldi baterako beharrak betetzeko.

11. Datuen babesa.

Tolosako Udaleko lan-kontratudun finko izateko hautaketa prozesuen oinarri orokorrek laugarren oinarriko 4. puntuan xedatutakoari jarraituko zaio.

12. Inpugnazioak.

Epaimahai kalifikatzaileak emandako egintzen eta ebazpenen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio egintza eman duenaren goragoko organoari, hilabeteko epean, errekurritutako egintza argitaratu edo jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Hori guztia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

1) Experiencia de trabajo desempeñado, hasta un máximo de 8,3 puntos, en atención al siguiente baremo:

— Por cada mes completo de servicios prestados como profesora o profesor de piano y taller en Administración Pública en Centros de Música y/o Danza autorizados por la Administración Educativa o dependientes de la misma, hasta un máximo de 8,3 puntos, a razón de 0,3 puntos por mes de servicios prestados.

En todos los casos, si la dedicación no es a jornada completa, se procederá a realizar el correspondiente prorrateo en la puntuación. En caso de periodos inferiores a un mes también se realizará el prorrateo en la puntuación.

Según la undécima base de las bases generales, entre otras, el tribunal calificador requerirá a los candidatos que acrediten los servicios prestados en otras administraciones públicas mediante certificación expedida por el órgano competente, especificándose la duración de la relación de empleo, el porcentaje de dedicación, el puesto desempeñado y las funciones realizadas.

Los servicios prestados en el Ayuntamiento de Tolosa, no habrán de ser acreditados documentalmente y se valorarán en base a los datos que obren en los expedientes personales de las personas candidatas.

A pesar de todo ello, el Tribunal podrá proceder a realizar las comprobaciones que considere oportunas.

2) Formación, hasta un máximo de 4,2 puntos.

Se valorará la formación complementaria relacionada con las funciones de la plaza convocada, hasta un máximo de 4,2 puntos según el siguiente baremo:

— Cursos de entre 5 y 20 horas: 0,25 puntos por curso.

— Cursos de entre 21 horas y 50 horas: 0,50 puntos por curso.

— Cursos de entre 51 horas y 100 horas: 1 punto por curso.

— Cursos entre 101 horas y 250 horas: 1,5 puntos por curso.

— Título de grado universitario distinto del utilizado para el cumplimiento del requisito, Máster o curso de posgrado: 2,5 puntos.

La formación complementaria se acreditará mediante certificación expedida por el organismo oficial que haya impartido el curso o mediante la aportación del título obtenido (o el documento acreditativo del pago de los derechos de expedición correspondientes).

10. Bolsa de trabajo.

Se creará una bolsa de trabajo con los aspirantes que hayan superado el proceso de concurso-oposición. La bolsa de trabajo se confeccionará ordenadamente en función de la puntuación final obtenida en el proceso.

El Ayuntamiento podrá utilizar dichas bolsas de trabajo para cubrir las necesidades temporales que pudieran surgir en el mismo puesto de trabajo o en aquellos con funciones similares.

11. Protección de datos.

Se estará a lo dispuesto en el punto 4 de la Base cuarta de las bases generales de los procesos selectivos para el ingreso como personal laboral fijo al servicio del Ayuntamiento de Tolosa.

12. Régimen de impugnaciones.

Contra los actos y resoluciones emanados del tribunal calificador podrá interponerse recurso de alzada ante el órgano superior jerárquico del que los dicta, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de la publicación o notificación del acto recurrido.

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en los artículos 121 y 122 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

EK\CV GAO-I-2026-03090

I. ERANSKINA

GAITEGI OROKORRA

Estatuaren eta EAEren antolaketa.

1. gaia. 1978ko Espainiako Konstituzioa. Atariko titulua. I. titulua: Oinarrizko eskubide eta betebeharrak. VIII. titulua: Estatuaren lurralde-antolaketa, I. kapitulua (printzipio orokorrak) eta II. kapitulua (toki-administrazioa).

2. gaia. Tokiko Autonomiaren Europako Gutuna.

3. gaia. Euskal Herriko Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa: Atariko titulua. I. titulua: Euskal Herriaren eskumenak.

Toki Araubidea.

4. gaia. Toki-erakundeen arautzeko ahalmena: erregelamenduak eta ordenantzak. Egiteko prozedura. Erregelamendu organikoa. Bandoak.

5. gaia. Toki-erakundeak: motak eta ahalak. Udalerria: lurraldea, biztanleria, antolaketa eta eskumenak. Udal-mugarteak aldatzea. Oinarrizko legeria eta autonomia-erkidegoko legeria.

6. gaia. Udalerriko biztanleria. Biztanleen errolda. Auzotarren estatutua. Atzerritarren eskubideak. Auzotarrek udalkudeaketan parte hartzea.

7. gaia. Udal-eskumenak: zehaztapen-sistema. Eskumen propioak, eskuordetuak eta propioak eta eskuordetuak ez diren eskumenak. Gutxieneko zerbitzuak.

8. gaia. Toki-erakundeen funtzionamendu-araubidea: bilkuren deialdia eta bilkuren, bozketen, bertaratzearen eta eztabaiden araubidea. Herritarren informazioa eta parte-hartzea.

9. gaia. Toki-egintzak eta -erabakiak aurkaratzea eta akzioak egikaritzea. Tokiko egintzen aurkako administrazio- eta jurisdikzio-errekurtsoak.

10. gaia. Toki-erakundeen ondasunak. Kontzeptua eta sailkapena. Jabari publikoko ondasunen eta ondare-ondasunen erabilera. Eskuratzea. Kontserbazioa eta tutoretza. Prerrogatibak. Ondasunen gozamena eta aprobetxamendua. Ondare-ondasunak besterentzea.

11. gaia. 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa: Legearen xedea eta printzipioak. Toki-autonomia eta autoantolaketarako ahala. Udal-eskumenak. Udal-antolaketa eta funtzionamendua. Tokiko zerbitzu publikoen kudeaketa.

12. gaia. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko legea: Udalerriko auzotarren eskubideak, betebeharrak eta erantzukizunak. EAEko toki-erakundeen publizitate aktiboaren betebeharrak. Informazio publikoa eskuratzearen arloko printzipioak eta erreklamazio-organoa. Herritarren parte-hartzeari buruzko xedapen orokorrak.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta administrazio prozedura.

13. gaia. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea. Prozedurako interesdunak: kontzeptua. Ordezkaritza eta ordezkaritza hori egiaztatzeko moduak. Ahalordetze-erregistro elektronikoak. Interesdunen eta interesdun berrien publizitatea. Administrazio-prozeduran interesdun direnen identifikazioa eta sinadura.

14. gaia. Administrazio Publikoen jarduera. Jarduteko arau orokorrak. Dokumentuen sarrera- eta irteera-erregistroa. Dokumentuak aurkezteko baldintzak. Komunikazioak eta jakinarazpenak. Ebazteko betebeharra eta administrazio-isiltasuna. Epe-mugak eta epeak.

ANEXO I

TEMARIO GENERAL

Organización del Estado y de la CAPV.

Tema 1. La Constitución de 1978. Título Preliminar. Título I: De los derechos y deberes fundamentales. Título VIII: De la Organización Territorial del estado, Capítulos I (Principios Generales) y II (De la Administración Local).

Tema 2. Carta Europea de Autonomía Local.

Tema 3. Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, de Estatuto de Autonomía para el País Vasco: Título preliminar. Título I: De las competencias del País Vasco.

Régimen Local.

Tema 4. La potestad normativa de las entidades locales: reglamentos y ordenanzas. Procedimiento de elaboración. El Reglamento orgánico. Los Bandos.

Tema 5. Entidades locales: clases y potestades. El municipio: término municipal, población, organización y competencias. Alteraciones de términos municipales. Legislación básica y legislación autonómica.

Tema 6. La población municipal. El Padrón de habitantes. El estatuto de los vecinos. Derechos de los extranjeros. La participación vecinal en la gestión municipal.

Tema 7. Las competencias municipales: sistema de determinación. Competencias propias, delegadas y competencias distintas de las propias y de las atribuidas por delegación. Los servicios mínimos.

Tema 8. Régimen de funcionamiento de las Entidades Locales: convocatoria y régimen de sesiones, votaciones, asistencia y deliberaciones. Información y participación ciudadanas.

Tema 9. Impugnación de los actos y acuerdos locales y ejercicio de acciones. Recursos administrativos y jurisdiccionales contra los actos locales.

Tema 10. Los bienes de las Entidades Locales. Concepto y clasificación. Utilización de los bienes de dominio público y de los bienes patrimoniales. Adquisición. Conservación y tutela. Prerrogativas. Disfrute y aprovechamiento de los bienes. Enajenación de los bienes patrimoniales.

Tema 11. Ley 2/2016, de Instituciones Locales de Euskadi: Objeto y principios de la Ley. Autonomía local y potestad de autoorganización. Competencias municipales. Organización municipal y funcionamiento. Gestión de servicios públicos locales.

Tema 12. Ley de Instituciones Locales de Euskadi: Derechos, deberes y responsabilidades de las personas vecinas de un municipio. Obligaciones de publicidad activa de las entidades locales vascas. Principios en materia de acceso a la información pública y órgano de reclamaciones. Disposiciones Generales sobre participación ciudadana.

Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y procedimiento administrativos.

Tema 13. Ley del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. Los interesados en el procedimiento: concepto. La representación y sus formas de acreditación. Los registros electrónicos de apoderamiento. Publicidad de interesados y nuevos interesados. Identificación y firma de los interesados en el procedimiento administrativo.

